



ZEGAMA KO UDALA

Zenbakia: 05/0320

ALKATETZAREN ERABAKIA

Eusko Jaurlaritzak COVID-19 birusa dela eta ezarritako osasun-larrialdiko adierazpenaren aurrean, egoera udalean aztertu ondoren eta indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan aginpideak erabiliz, honako hau erabakitzen dut:

LEHENA.- Zegamako udalak bideratutako zerbitzu eta ekintzei dagokionez, eta larrialdi epea mantentzen den bitartean, honako neurriak hartuko dira:

- Zegamako Udalak antolatutako ekintza guztiak bertan behera uztea (Erlezain Eguna, gazteei zuzendutako ekintzak, kultur ekintzak etab.) Era berean, kultur etxea eta udal liburutegia itxiko dira.
- Udal kiroldegia itxiko da, eta beraz, kiroldegietan aurrera eramaten diren jarduera guztiak bertan behera geldituko dira.
- Hiritarren arreta zerbitzuei buruz hiritarrei eskatuko zaie udal bulegoetara ez joatea premiazkoa ez bada. Ondorioz, hiritarrei eskatzen diegu, behar dituzten gestioak modu telematikoan egiteko, bai web atariaren bidez (www.zegama.eus), bai udal bulegoetara telefonoz deituz.
- Zentzu berean, udal langileen lanaldi eta egoerari buruz, zentzu horretan ematen diren neurriak jarraituko dira, horretarako beharrezkoak izan daitezkeen erabakiak hartuz.
- Udalak, eta hartuko diren neurrien aurreikuspenaz, Jubilatuen Egoitza kautelaz itxiko ditu. Era berean, Eguneko Zentroko zerbitzua itxiko da. Neurri horiek, eta beharrezkoak izan daitezkeen beste batzuk (Etxez etxeko laguntza etab., Gipuzkoako Foru Aldundiak hartzen dituen erabakien arabera, Udal Gizarte Zerbitzuetatik bideratuko dira.

Bigarrena.-Doakienei ebazpen hau helaraztea, eta ohiko hedabideetatik honen berri ematea.

Zegaman, 2020ko martxoaren 13an.

